



## 2.-Pedro Ortiz de Atucha Alcibar

**Pedro Ortiz de Atucha** dugu Ortuño de Atucha eta Mari Ibáñez de Alcibarren semeetako bat, Arantzazun jaio eta bertan bizi izan zena, Arantzazuko *Arantzazu/Palazio* oinetxe eta dorrean; itxura guztien arabera, egungo *Palazio* etxe inguruan zeuden kokatuak, eleiza eta erreka nagusiaren artean dauden lurretan, burdinola, errota eta guzti<sup>5</sup>.

Aurkeztu dugun 1598ko frogantzan esaten zaiguna:

En la anteyglesia de Arançaçu, en 3 dias del mes de junio de mill y quinientos y noventa y ocho años, yo el dottor Ondategui Vrrutia resceui por testigos a los siguientes acerca de la oposicion en que an estado **Ortuño de Atucha y dona Maria Ibanes de Alceibar** en la dha anteiglesia por auer vivido en ella treinta annos poco mas o menos.

Dorretxe, burdinola, errota... Abendañotarrenak ziren; Atuchatarrak administratzaileak ziren, eta han jaio zen Pedro Ortiz.

Kontakizunaren garaian ere, *Palazio* izenez ezagutzen da oinetxea. Izan ere, aurrerago garatuko dugun 1572-1576 urte bitarteko auzian (*op. cit.*), Arantzazuko etxe libreez<sup>6</sup> mintzo direla, bi lekukok honako etxe hauek aipatzen dituzte:

Batak “las dhas casas libres e señaladamente nombraron seys casas que son la casa de *Arand(o)*y e la casa de *Usabel* e la casa de *Arançaçugoytia* y la casa de *Hegusquiça*, e la casa de Fortuno de Tejeria, e la de Ochoa de Çalbide, e que todas las demas casas que abia en la dha anteyglesia heran casas pecheras de su magestad o de particulares, e que

<sup>5</sup> “La espresada *Casa Palacio* y sus pertenecidos indicados pertenecen al vínculo y Mayorazgo regular titulado de Abendaño y de Valdecarzana, que lo fundó don Martín Ruiz de Abendaño y Gamboa, Señor que fue de Villa Real de Alava, por su Escritura de Testamento otorgada en Villa Real de Alava a catorce de octubre de mil quinientos treinta y nueve, ante el Escribano de su número don Diego de Anuncibay, para cuya fundación precedió la aprobación y autorización Real competente, dada en la villa de Valladolid a trece de Mayo de mil quinientos treinta y ocho, ante Don Juan Vázquez Molina, Secretario de sus Magestades la Reina Doña Juana y su hijo Don Carlos primero... (*DJE\_Arantzazu\_03\_01*)

“Conbiene a saber que por quanto yo he e tengo y poseo asi en este condado y señorío de Viscaya como en la provincia de guipuscoa y alaba los bienes siguientes, conbiene a saber: [...] El patronazgo de sanpedro de Arançaçu y las cassas y herreria y molienda y montes y terminado de Arançaçu...” (*EAH-AU\_arriola-urreacha\_urizar-urreacha\_068\_18*)

<sup>6</sup> Beste inongo etxerekin inolako dibisa edo/ta zergarik ez zuten etxeak omen ziren etxe libreak.



particularmente les oyo decir de como la dha casa de *Ybarra* debia sesenta mrs en cada un año...” diosku; bestea “ha tenido por casas libres este dho testigo a la casa de *Hegusquiça*, e a la casa de *Tejeria* de Hurtuno de Çalbide, e la casa de Ochoa de Çalbibe, e la casa de *Usabel* y la casa de *Arandoy*, y el **palacio de Arançau** en la dha anteyglesia de Arançau.”



Pedro Ortiz ere, aita Ortuñoren bidetik, Abendañotarren administratzaile eta maiordomo izango dugu. 1567ko agiri batean (*ZUA\_03\_Leginetxe\_1567*), honako hau irakur genezake:

En Çiorraga, que es en la anteyglesia de Arrancudiaga, a veinte y seis dias del mes de junio de mill y quinientos y sesenta y siete años, en presencia de mi P<sup>o</sup> de Leguinaeche, scriuano de su Magd e testigos de yuso escritos, parecio presente **Pero Vrtiz de Atucha**, vezino de la anteyglesia de Arançau, en nombre del señor don **Prudencio de Gamboa e Avendaño**<sup>7</sup> y por virtud e poder que dice tener de el dho señor don Prudencio ante escriuano publico...

---

<sup>7</sup> “**Prudencio de Abendaño y Velasco**, 5<sup>o</sup> Señor de Villarreal de Álava. Nació hacia 1510. Murió el 22-IV-1568. Está sepultado en la Iglesia de Villarreal de Álava. Tuvo cuatro matrimonios (cfr. Luis de Salazar y Castro, *Historia generalógica de la Casa de Lara*, p. 450): I) Con Luisa de Beaumont y Navarra e Icart, procreo a 1<sup>o</sup>) Diego de Abendaño y Beaumont (que casó con doña Luisa Sarmiento, que falleció en 1612 siendo Dama de Su Majestad la Reina), y tuvieron por hija a **Isabel Ángela de Abendaño**, que casó con **Martín de Abendaño y Zabala**)...”

<http://www.bisabuelos.com/med/abendano.html>

“**D. Diego de Abendaño y Beaumont**, Señor de Villarreal y de las casas de Olaso y Urquizu con sus patronatos; militó a su costa en la conquista de Portugal y en la defensa de las costas de Vizcaya contra los ingleses mandados por Drack. Casado con doña Luisa Sarmineto de Mendoza. Hijos: D. Francés, que murió niño, y doña Isabel Angela, que casó con don Martín de Zabala, Caballero de la



Edo Laudioko *Hormaetxe* oinetxeko auzi batean esaten zaiguna (*RCV-RE,CAJA 1831,28*):

...treinta y cinco ducados a **Pero Hortis de Atucha**, mayordomo del dho don prudencio para en parte de pago de los dhos sesenta ducados que ansi yo y la dha mi muger deuamos al dho don prudencio =

1572an, Pedro Ortiz de Atucharen alarguntsak egingo duen inbentario batean, senarraren zorren artean hurrengo zerrendatzen du:

Yten dixo la dha doña Mari Ybanes que el dho Pero Vrtiz de Atucha deuia al señor don Diego de Avendaño ciento ducados por un----- de los diezmos de Yurre entre treinta e tres myll mrs **de rentas de la herreria e pertenezidos e molinos de Aranzazu** que se ----- por el dia de Navidad primero pasado que heran de pagar al dho señor don Diego (*ZUA\_03\_Leginetxe\_1572\_01*).

Ikus dezagun, azkenik, 1621 urteko jarraiko testigantza hau (*BFAAH-JCR1600/018*):

En la Villa de Villaro a diez y ocho dias del mes de março de mill seiscientos y veinte años Martin Ruiz de Villela, administrador a bienes y Maiorazgo de la cassa de Auendaño pertenecientes a don Martin de Auendaño y Çauala y doña Ysael Angela de Avendaño su muger, por testimonio de mi el presente escriuano: dixo que la herreria, molinos, torre de Arançaçu...

Argi erakusten zaigu, bada, *Palazio* oinetxe, dorre, burdinola eta abarrak Abendañotarrenak zirela eta, gerora Martín Ruiz de Villela izango den bezalaxe, kontakizunaren garaian Atuchatarrak administratzaile besterik ez direla.

### 2.1.-Mari Ibáñez de Usunsolo Atucholakoa

Mari Ibáñez de Usunsolo *Atuchola* oinetxeko oinordeko dugu; Sancho Ortiz de Usunsolo eta Catalina de Ocerinen alaba, Juan Ortiz de Usunsolo eta Teresa Sánchez de Atucharen biloba.

---

Orden de Santiago, y murió sin posteridad, extinguiéndose en ella esta línea, y sucediendo en las casas de Olaso y Urquizu don Luis de Guebara, primer Conde de Escalante y Marqués de Rucandio, hijo de don Antonio de Guebara y doña María de Abendaño Beaumont, en cuya descendencia se han conservado.”

<http://geneaordonez.es/datos/getperson.php?personID=I16116&tree=Miarbol>



Juan Ortiz eta Teresa *Atucholan* bizi ziren. Ematen du, haatik, *Urkizuko* burdinola ere bizileku izan zutela hainbat urtetan zehar, euren jabeak izango ez baziren ere<sup>8</sup>. Juan Ortiz hau 1462an jaio eta 1542 inguruan hil zen.<sup>9</sup>

Hauen seme izan zen Sancho Ortiz de Usunsolo, birritan ezkondua. Bere lehen emaztea Catalina de Ocerin izan zen eta hiru seme-alaba ezagun izan zituzten: Juan Ortiz de Usunsolo, seme zaharrena eta *Atuchola* oinetxeko oinordeko izendatu zutena, Sancho eta Mari Ibáñez de Usunsolo.

Sancho Ortizen bigarren emaztea Zeanuriko Mari Sáenz de Alcibar izan zen. Mari Sáenz hau ere 1752ko auzira deitua izango da eta bere testigantza (Areatzan emana mila bostehun eta hirurogeita hamabiko abenduak hemeretziak) oso interesgarria iruditzen zaigu:

... **dona Mari Saes de Alcybar**, byuda, vezina de la antegylessia de Santa Maria de Çeanuri... dixo ser de hedad de setenta años poco mas o menos, e que la dha dona Mari Ybanes de Usunsolo hera ajyada porque la testigo **estuvo casada con Sancho Vrtis de Usunsolo su padre...**

---

<sup>8</sup> "... agora quarenta o cinquenta años este testigo en un dia del dho tiempo en la herreria de Urquiçu, trabajando con **Juan Vrtiz de Usunsolo**, dueño que fue de la dha casa de *Atuchola*, que a la sazón bybia en la dha herreria de Urquiçu..."

"...e porque Juan Vrtiz de Usunsolo difunto, abuelo de la dha dona Mari Ybanes... solia estar y estaua ynpedido de viejo así en *Vrquiçu* como en la casa de *Atuchola*, que es en la merindad de Bedia, donde fallesçio..."

"Testimonio e depusición de **rrodrigo de Castillo**, escriuano de su magestad, vezino de la anteyglesia de Santamaria de Castillo..."

... e que así mismo el dho Juan Vrtiz de Vsunsolo fallesçio dende a dos años poco mas o menos tiempo despues que fallesçio el dho San Juan de Elexabeitia, a lo que tiene por cierto porque este testigo se allo presente a su enterrorio en la yglesia de Lemona, el qual solia estar y estuvo ynpedido de su persona de viejo en *Vrquiçu*, que es en la anteyglesia de Yurre, juntamento con el dho Sancho Vrtiz su hijo, en seis o siete años atras que casi no salia a las plaças e conuersaciones ny a mysa..." (*ibid.*).

<sup>9</sup> ... e asy abia oydo dezir de Juan Vrtiz de Usunsolo, su suegro, que hera hombre viejo e anciano, de hedad de ochenta años poco mas o menos y a que se murio treinta años poco mas o menos ..." (*ibid.*). Mari Sáenz de Alcibar, Sancho Ortiz de Usunsoloren bigarren emaztea, Zeanurikoaren testigantza, 1572koa.



... e hizo vida maridable veinte e seis o beynte e siete anos poco mas o menos... vivio en la casa de *Alçaybar* ... (*ibid.*)

Sancho Ortiz 1547an hil zen *Alcibarren* eta Lemoara eraman zuten gorpua lur ematera:

Testimonio e deposiçion de **Juan rruiz de Ortuçar**, escriuano de su magestad y del numero de la villa de Billaro e vezino della, ... e siendo preguntado... dixo ser de hedad de sesenta e zinco años poco mas o menos, e que la dha dona Mari Ybanes de Vsunsolo y la mujer de este testigo heran parientes en el quarto grado, e asi mesmo Pero Vrtiz de Atucha, marido que fue de la dha dona Mari Ybanes, y la dha mujer de este testigo heran parientes en el tercero grado...

... e asi mesmo saue e se acuerda que **Sancho Vrtiz de Vsunsolo**, padre de la dha dona Mari Ybanes de Vsunsolo, estando casado segunda vez con dona Mari Ybanes de Alzibar de la anteyglesia de Çeanuri, morio en la casa de *Alzibar* en el año pasado de mill e quinientos e quarenta e siete el dia Domingo de Ramos del dho año, y le lleuaron a enterrar a la yglesia de Santa Maria de Lemoa, y este testigo se allo en su enterrorio... (*ibid.*)

Kontakizunarekin jarraituz, derragun Juan Ortiz oinordekoa, Mari Ibáñez de Usunsoloren neba, hil egin dela, nonbait; Mari Ibáñez izango da, ondorioz, *Atuchola* oinetxeko oinordeko izendatua:

“... a cauo de cinco o seis años que se caso con la dha dona Mari Ybanes **heredo la dha cassa de Atuchola por muerte de Juan Vrtiz de Vsunsolo**, su cunado<sup>10</sup>, hijo mayor que fue de el dho Sancho Vrtiz...” (*ibid.*).

## 2.2.-Pedro Ortiz de Atucha eta Mari Ibáñez de Usunsolo

XVI mendeko bigarren laurdenean, *Atuchako* ondorengo den Pedro Ortiz de Atucha eta *Atucholako* den Mari Ibáñez de Usunsolo ezkonduko dira/dituzte.

Bi data desberdin darabiltzagu esku artean ezkontzarako, beti ere aipatu dugun Diego de Elexabeitia eta Mari Ibáñez de Usunsoloren arteko auziaren arabera. Urrutikoena 1538 ingurukoa izan daiteke; hurrekoena, 1550ekoa:

Pedro de Vdayaga, vezino de la anteiglesia de nuestra señora Santa Maria de Yurre... diria como dixo en esta causa lo contrario de la verdad, porque no habiendo mas de veinte e

<sup>10</sup> Kaso honetako lekukoa Pedro Ortiz de Atuchaz ari da; hortik “su cunado” ...



cinco años poco mas o menos que Pero Vrtiz de Atucha y la dha dona Mari Ybanes se casaron, el dicho Pedro depone de treinta e seis años... (RCV-SV,CAJA 1663,3).

1575eko irailaren zazpirako hilak dira bai Pedro Ortiz de Atucha bai emazte Mari Ibáñez de Usansolo:

En Larraçabal, que es en la anteyglesia de Helexabeytia, a siete dias del mes de setiembre de myll e quinientos y setenta e cinco años... parecio presente Martin de Çamudio, tutor e curador de la persona e bienes de dona Mari Ybanes de Atucha, su menora, hija de **Pero Hortiz de Atucha y de dona Mari Ybanes de Husunsolo, defuntos**, e dixo... (*ibid.*).

### 2.2.1.-Sancho Ortiz de Usunsoloren ondasunak enkantera

1546an hasita, Mari Ibáñez en aita Sancho Ortiz de Usunsoloren zorrak direla eta, euren oinetxea eta oinibar guztiak enkantera aterako dira auzi luze baten ondorioz. Zordun baten onibarrak urtea eta eguna izan behar zuten aldarrikatuak deialdia eta errematea egin ahal izateko. Eta horrela, 1547ko maiatzak batean, zortzian eta hamabostean, Pedro de Iturrioz el joben eskribaua azalduko da; erosteko prest dagoela adierazi eta berari salduko zaizkio:

E despues de asi dado el dho tercero pregon e llamamiento segun dho es e luego incontinente francisco de Vedia teniente de meryno en la merindad de Vedia a la hora suso dha dixo e pu<sup>a</sup> una y dos e mas bezes que quyen los queria comprar e despues de pasado año e dia las **casas e caseria de Atuchola** e todos sus pertenesçidos e rrayz della e a la **ochaba parte de la herreria de larrabeytia** e los puso en primero rremate.....

[...]

... e dixo que el prometia e prometio despues de pasado año e dia por la **casa nueva de gastañaçabal** con sutierra e rraiz e por toda la dicha casa seys mill mrs; yten asy mesmo dixo que prometia e prometio por la **casa de Landaeta** e por todo su pertenesçido de tierras e frutos e llosas e mançanales e huerta diez mill mrs despues de pasado año e dia; yten asy mesmo dixo que prometia e prometio por la **casa e caseria de Arecheta** e de todo su pertenezido veynte mill mrs; yten por el suelo e rrenta y casilla de la **otra que esta cerca de Arecheta e junto a la dha casa de Arecheta** tres mill mrs...

*Atuchola, Larrabeytiako burdinolaren zortzirena, Gastañagaçalgo etxe berria, Landaeta, Arecheta eta hurbil dagon bigarren etxe bat dira, bada, onibarrak.*



Auzian azaltzen diren parteek euren alegazioak egingo dituzte; Sancho Ortizen hiru seme-alabek, euren artean. Izan ere, hauek adieraziko dute onibarren erdia beraiena dela, euren amari zegokiona hain zuzen.

Luze joan da auzia eta 1551eko abenduaren hiruan, Bilbon, Bizkaiko Korrejidorearen Teniente den Çumalabe lizentziatuak epaia emango du.

Hona erabakia:

... que devo de declarar e declaro pertenesçer a los dhos hijos del dho sancho hortiz de Vsunsolo la mitad de todos los dichos vienes que los dhos padres tenjan al tiempo que la dicha doña catalina de oçerin madre de los dichos menores e muger del dho sancho hortiz de Vsunsolo murio como byenes y herencia de la dicha madre...

y en la otra mytad de bienes... devo mandar e mando proceder adelante en las dhas execuçiones e confirmar los rremates hechos de los dhos byenes executados, los cuales mando entregar a los mayores compradores dellos...

#### *2.2.1.1.-Pedro Ortiz de Atucharen eskaintza handiagoa*

Azken agindu honi eutsiz, bada, han aurkeztuko da Pedro Ortiz bere emazte Mari Ibañez eta nebak Catalina de Ocerin amaren legitimaren ordainketan hobestua izan zirela adieraziz; beraz, euren ordainketa lortzearen, Pedro de Iturrioz eskribauari errematean eman zitzaizkion onibarretan eskaintza handiagoa egiten duela:

Muy magnifico señor **pº hortiz de Atucha en nonbre y como conjunta persona de doña my ybañes de Vsunsolo my legitima muger** digo que a pedimiento de pº saez de arexmendi e juan de otaola estan executados ciertos byenes e rrayzes de sancho hortiz de Vsunsolo difunto los cuales fueron rrematados en pº de yturrioz escriuano que salio por comprador e pujador mejor dellos y la dha mi muger e los otros sus hermanos hijos del primer matrimonio de sancho hortiz fueron preferidos en la paga de la legitima de doña catalina de oçerin su madre conforme al inventario que hizo el dho sancho hortiz, por ende por lo que toca a mi e a la dha mi muger e por alcançar nra paga yo pujo los dhos byenes rraizes e prometo por ellos ademas de lo que antes estan rrematados los precios siguientes: conviene a saber, por las **casas y caseria de Atuchola** con todos sus pertenecidos treynta ducados; yten por la **otaba parte de la herreria de larraveytia** con su herramienta e pertenescidos, diez ducados; yten por la **casa y caseria de gastañagaçaval** con sus pertenescidos, myll mrs; yten por la **casa de Landaeta** y sus pertenescidos dos mill mrs; yten por la **otra casilla** y por su suelo e renta otros myll mrs; yten por la **casa y caseria de Arecheta** e sus pertenescidos



otros dos mill mrs y ofresco por mi fiador, conforme a la ley, a hortuño de Atucha mi padre e a pº de Alçaybar e a qualquier dellos e dello pido testimonio e pido se rresçiba en dha puja e sobre ello justicia, e pa lo nesçesario su ofiçio ynploro. Pº hortiz de Atucha.

Pedro Ortiz de Atuchak 1551ko abenduak 10ean egin du eskaera hau; lau egun beranduago Pedro de Iturrioz eskribauari jakinaraziko zaio. Ematen du eskaintza handiago hau onartua izango dela; izan ere, hogeitaz beranduago, Pedro Ortiz de Atucha hilko denean, Mari Ibañez alarguntsak egingo duen senarraren ondasunen inbentarioan onibarrok zerrendatuko dira.

Har dezagun kontuan, bestalde, 1551ko data honetan, Pedro Ortiz bere emaztearen izenean ihardun dela; ezkonduak, bada, 1551ean.

## 2.2.2.-Atucha

*Atucha* oinetxearekin ere antzeko zerbait gertatuko da.

Pedro Ortiz de Atucharen amona María Sáenz de Atucha da XV mendearen erdialdera *Atuchako* ugazabandre; Juan Ocerin de Arana, berarekin ezkontzera etorriko dena. Euren seme, Íñigo eta Hortun Sáenz de Atucha. Íñigo horren seme, Joan de Atucha, *Atucha* jarauntsiko duena.

### 2.2.2.1.-1572ko *agiria* (ZUA\_03\_Leguineche\_1572)

Agiri hau Pedro Ortiz de Atucha hil ondoren bere emazte Mari Ibáñez de Usunsolok aginduko duen ondasunen inbentarioaren ataltxo bat da. Hona esaten zaiguna:

Yten puso por ynventario la **casa y solar de Atucha** con las demas casas a ella pertenecientes con sus tierras heredades castañales rrobredales y xarales e mas sus pertenecidos que el dho **Pero Vrtiz de Atucha** hubo conprado en rremate por deudas de **Juan de Atucha** difunto, y esta tomada posesion de la dha casa y solar e vienes con su dho – e puso por ynventario la dha casa y solar e aquello que de derecho perteneziera a la heredera de dho Pero Ortiz de Atucha, conforme con el testamento e ultima voluntad con que fallecio, que paso por persona de my el dho escriuano a que se rreferio.

Pedro Ortiz 1571ean hilko da; ordurako *Atuchola* eta *Atucha* eta bi oinetxe hauei zegozkien gainontzeko etxe, lur etabarrak erosiak izango ditu.



### 2.3.-Pedro Ortiz eta Mari Ibáñezek ezkontza ondoko garaiak

Ataltxo honetan, Pedro Ortiz eta Mari Ibáñez ezkondu zirenetik eta Pedro Ortiz hil zenerako garaiei dagozkien agiriak aurkeztuko ditugu.

#### 2.3.1.-Pedro Ortiz, *Santa Catalina* kaperako patroia eta administratzailea

Dimako San Pedro elizan, bertako apaiz eta onuraduna izan zen Hernando Ibáñez de Olazabal lizentziatuak *Santa Katalina* kaperara eratu zuen<sup>11</sup>; Pedro Ortiz de Atucha izango da, urtetan, kaperara horren patroia eta administratzailea.

Administrarritza horren adibide gisa, hona aurkitu ditugun bi agiri desberdin.

##### 2.3.1.1.-1569-01-10: *Pedro Ortiz eta Íñigo Ortiz de Atucha*

Pedro Ortiz da, azaldu bezala, kaperara-administratzailea. Kaperak dituen bi kapilautzetako kapilauak kargua utzi du eta Pedro Ortizek delako Íñigo Ortiz anaia gazteari ematen dio Kapilautza.

En la Casa torre de Arançaçu, que esta en la merindad de Arratia, a diez dias del mes de henero de mill e quinientos y sesenta y nueve años, en presencia de mi, P<sup>o</sup> de Leguinaeche, scriuano de su Magd e testigos de yuso scriptos, parecio presente **P<sup>o</sup> Vrtiz de Atucha**, vezino de la anteyglesia de Arançaçu patron e administrador que es de la Capilla de Santa Catalina de la iglesia de San Pedro de Dima que dexo e constituyo el liçençiado Olazaua, defunto... e dixo que la vna de las dos Capellanyas de la dha Capilla estaban bacas por dexazion que avia hecho Hernando Abad de Lexarazu, clerigo capellan en dha... capellania... e daba la dicha Capellania de la dha Capilla con todos los frutos a ella pertenecientes al bachiller **Ynigo**

<sup>11</sup> "... el año de 1530 el Licenciado Hernando de Olaçaua Inquisidor de Calahorra, y Prouisor del mismo Obispado, fundo capilla en la iglesia de Dima con licencia de los señores de la casa de Auendaño..."

"Que el Licenciado Hernando de Olaçaua, Inquisidor que fue de Calahorra, y Prouisor y Vicario general en el dicho Obispado, y Beneficiado en la dicha Iglesia de san Pedro de Dima, fundo, doto y edificio en ella, puede auer 60 años poco mas o menos, una capilla de la aduocacion de santa Catalina por la parte del Euangelio con su tumba, y todo adorno, y dos capellanes que la siruen, lo qual hizo con licencia y consentimiento de don Prudencio de Auendaño padre del dicho don Diego, como patron deuiero, y propietario de la dicha Iglesia de que los testigos han tenido y tienen entera noticia, por auerlo entendido ansi en el tiempo de su Acordança, y oydo a sus pasados" (BFAAH-LIB\_HIST\_0058/001).



**Vrtiz de Atucha**, Clerigo... como a pariente mas cercano del dho licenciado...  
(ZUA\_03\_Leginetxe\_1569)

### 2.3.1.2.-1569-08-29: *Pedro Ortiz de Atucha eta Gaztelu-Elexabeitiko Gallano sendia*

Sepan quantos esta Publica escrit<sup>a</sup> de venta e fundamento, nueva constitucion e censo perpetuo vieren como nos Domingo de Gallano e dona Toda de Gallano su legitima mujer, vecinos de la anteyglesia de Nra S. S. Maria de Castillo... otorgamos e conoçemos por esta presente carta que de nra propia y espontanea voluntad, sin ynduçimiento alguno, vendemos e fundamos e nuevamente constituymos a bos **P<sup>o</sup> Vrtiz de Atucha**, vecino de la anteyglesia de Arançaçu, que presente estays, como administrador que en una con vuestros consortes... que soys de la capilla de la Señora S. Catalina questa echa e fundada en la iglesia de señor S. Pedro de Dima por el Lizençiado Ernando Ybanes de Olaçaval, cura y beneficiado que fue de la dha iglesia de buena memoria... conviene a sauer: tres mil mrs de buena moneda corriente en Castilla, que azen dos blancas viejas vn marabedi en cada un año, pagados para siempre jamas, la qual dicha paga comiença, a sauer, del dia de S. Cruz de setienbre primero que bendra de este presente año de mill y quinientos e sesenta y cinco años en adelante, que será la primera paga para el dia de S. Cruz de setienbre del año venidero de mil y quinientos sesenta y seis años e dende en adelante suçesivamente las pagas de cada un año, una en pos de otra, para siempre jamas, y al dicho plaço e termino en cada un año en dineros... so pena de pagar... que todo ello lo ponemos sobre nos e nros erederos...

El qual dicho censo fundamos e vendemos e nuevamente constituimos perpetuamente por preçio equantia de quarenta e dos mil mrs los quales emos rreçibido realmente e con efecto de vos el dho P<sup>o</sup> Vrtiz por en nombre de los dhos vros consortes administradores de la dha capilla en reales de a ocho e de aquatro y de a dos e singles, de los quales nos damo por contentos e pagados a toda nra voluntad... el cual dicho censo cuenta fundamos e constituimos sobre nras personas e sobre todos nros bienes muebles errayzes abidos e por aber especial e general e señaladamente lo fundamos e constituimos sobre los bienes que de yuso serán contenidos... los quales dichos bienes son los siguientes:

La nra casa principal de *Gallano*, donde nos bibimos, y la casa en que hay lagares que esta en frente de la dha casa principal, e las heredades de pan coger e uerta e mançanales e castañales y demas pertenecientes a la dha nra cassa de *Gallano* con todas sus entradas... (BFAAH-GORTAZAR 2479-001-025 eta BFAAH-JCR0231/006).



### 2.3.2.-Arantzazuko elizateko ordezkari Gernikako Batzar Nagusietan

Dakigula, 1558-10-25, 1565-01-02, 1566-12-17 eta 1567-03-18ko Batzarretan, Pedro Ortiz de Atucha izan zen Arantzazuko elizateko ordezkari Gernikan (Atucha, 2023: 3)<sup>12</sup>.

### 2.3.3.-Bilboko *Hermudaça* izeneko basoa (BFAAH-BILBAO ANTIGUA 0053/002/003)

1567an hasita, Bilboko hiriak eta bertako hiritar izan zen Juan Martínez de Recalde auzia izan zuten. *Hermudaçan*, agidanez, mea zegoen eta ustiaketa berari zegokiola dio Juan Martínezek. Bilboko hiriak basoko egurra moztu duelako kalteak izan dituela esan eta kalteok tasa daitezen agintzen da.

Ez dira, haatik, tasazioetan ados jarri parteak. Azkenean Kantzelaritzako Presidente eta Entzuleek epaia emango dute hirugarren *gizon on* bat izenda dadin tasazioa egiteko:

Bista esta probision e los autos en el insertos de los señores presidente e oydores e Juez myor de Vizcaia por el muy magnifico señor liçençado Lope de Montenegro sarmiento corregidor en este senorio de vizcaia – dixo que auiendo informado de personas de este senorio a quien podria nonbrar por hombre bueno sin sospecha conforme a los dhos autos arriba dichos para beer el daño que en los dichos montes de hermudaça se hizo nonbraua e nonbro por tal hombre bueno e tercero a **pero Vrtiz de atucha** vezino de la anteyglesia de arançaçu que es en este senorio de Vizcaia al qual mandaua que dentro de nueve dias de su notificación parezca ante su merçed a hazer el juramento [...] E por el dho pero Vrtiz de atucha fue açetado el dho nombramiento e hizo el juramento e solenjdad e dio el parecer siguiente =

Hona Pedro Ortiz de Atucharen tasazioa:

Bisto por mi pero Vrtiz de atucha tercero nonbrado por hombre bueno e aberiguador para el pleito que a abido e ay entre juan mjnez de rrecalde e la villa de viluao sobre el monte de hermudaça e daños que el dicho juan mjnez pretende auer abido sobre auer esquilmado la dha villa el dho monte sobre auer bisto los terminos del dho monte e de la benera que le dho juan martinez tiene en el dho lugar de hermudaça e comunicado e platicado con personas espertas en el negoçio y he bisto lo demas que se debia beer para aberiguar el dho daño atento que consta que el dho juan martinez tenia sacados de la dha benera quatro mill quintales de bena y no tenia leña para rrecaminar la dha bena por auer cortado el

<sup>12</sup> Isaak Atutxa-Kaudalategi. 2023. *Arantzazu: nor/zer... non. Historia baterako materialak II*. Arantzazuko Udala.



burullo del dicho monte de hermudaça e a causa dello el dho juan mjnez dexo de rrecaminar la dha bena por lo qual declaro auer rreçeuido el dho juan martinez daño de treinta mill mrs en los quales condeno a la dha villa...

Auziak aurrera jarraituko du. Azpimarratu nahi izan duguna Pedro Ortiz de Atucha honen *gizon on* fama da.

#### 2.3.4.-Pedro Ortiz, Prudencio de Gamboa Abendañoren administratzaile

##### 2.3.4.1.-1567-06-26ko agiri bat

Kasu honetan, Pedro Ortiz hau Prudencio de Gamboa Abendañoren administratzaile gisa azaltzen zaigu, bere izenean Zolloko San Martin elizateko hamarrenak saltzen dituen:

En Çiorraga, que es en la anteyglesia de Arrancudiaga, a veinte y seis dias del mes de junio de mill y quinientos y sesenta y siete años, en presencia de mi Pº de Leguinaeche, scriuano de su Magd e testigos de yuso escritos, parecio presente **Pero Vrtiz de atucha**, vezino de la anteyglesia de Arançazu, en nombre del señor don Prudencio de Gamboa e Avendaño y por virtud e poder que dice tener de el dho señor don Prudencio ante escriuano publico, e dixo que por este poder daba e dio en Juan de Vribarri, vezino de la anteiglesia de San Myn de Çollo, que presente estaba, los diezmos de la dha yglesia de San Martin de Çollo, que son del dho señor don Prudencio, por tiempo y espacio de dos años conplidos que corren desde el dia de Natibidad proximo pasado y por precio e quenta de treze mill e zinquenta mrs en cada un año, que el dicho Juan de Uribarri hubiese de dar y pagar a el dho don Prudencio o en quien con poder estuyese pagados los treze mill e cinquenta mrs deste dho modo: por el dia de Navidad primero que viene al fin de este dho año, y los otros treze myll zinquenta mrs desde el dho dia de Navidad primero que viene en un año... (ZUA\_03\_Leginetxe\_1567).

##### 2.3.4.2.-1597ko agiri bat

Hau ere aurrerago aurkeztua (RCV-RE,CAJA 1831,28):

...treinta y cinco ducados a **Pero Hortis de Atucha**, mayordomo del dho don Prudencio para en parte de pago de los dhos sesenta ducados que ansi yo y la dha mi muger deuiamos al dho don prudencio =



### 2.3.5.-Pedro Ortiz, anaia Íñigo Ortizen zordun

Zentsu baten berri ematen digun agiri hau 1569ko urriak 21ekoa dugu. Hona zentsuan ageri dena:

Sepan quantos esta publica escritura de venta y fundamento de çenso e nueba constitution vieren como yo, **Pero Vrtiz de Atucha**, vezino de la anteyglesia de Arançaçu, otorgo que por esta Carta vendo fundo e nuevamente instituio en vos el **liçenciado Ynigo Ortiz de Atucha, my hermano**, clerigo beneficiado de la yglesia de San Pedro de Arançaçu, que estais presente, por bos y para vros herederos y subçesores y para quien de bos e dellos tuviera titulo y causa, veinte ducados de pral de çenso rredemyble en cada un año pagado por el dia de Todos los Santos de cada un año y ha de ser la primera paga que hos tengo de azer por el dho dia de Todos Santos del año venydero de mil e quinientos y setenta años e asi en los otros años siguientes al mysmo plazo sucesivamente los... que situo e asiento e instituio sobre las **mis casas y caserías de Elexalde y Ugaldea**, que son en la anteyglesia de Dima, y sobre las tierras y heredades, castañales rrobredales y todos los demas sus pertenecidos; y sobre los **molinos de Elguesua**, que ansi bien por myos propios por titulo de compra que de ellos tengo, los quales tengo libres de çenso y tributo e ypoteca especial y general = los quales dhos veinte ducados del dicho censo en cada un año los bendo por precio e quantia de duzientos e diez ducados de pral que por ellos me disteis e pagasteis en dineros contados, los quales me otorgo de bos por bien contento e pagado a toda mi voluntad porque los rezebi de bos...

... que fue fecha en la dha Cassa y torre de Arançaçu, a veinte e uno dias del mes de otubre de mil y quinientos y sesenta e nueve... (ZUA\_03\_Leginetxe\_1569).

Agiriko datu interesgarrienetakoa Pedro Ortizek jartzen duen bermea da. Berak dioenez, Dimako elizatean kokaturiko *Elexalde* eta *Ugaldea* etxaldeetako eta (Igorreko) *Elgetzuko* erroten jabe dugu.

### 2.3.6.-Pedro Ortiz eta Arantzazuko lau auzotar

1570eko ekainak 27ko agiria. Pedro Ortizek ikatza egin behar du *Arantzazu* oinetxe eta dorreko bi basotan; horretarako, Pedro de Aranzazugoitia, Pedro de Arandoi, Juan de Usabel eta Juan de Huegunaga, laurak arantzazuarrak, hartu ditu peoi ikatz hori egiteko. Baina, nonbait, Pedro Ortizek kalte eta galerak izan ditu basoetan, Martin Ibáñez de Uberuagak hamazortzi dukatetan ebaluatu dituenak. Lau auzotarrok kalteei aurre egiteko obligazioa sinatzen dute:



En la Casa y torre de Arançaçu que es en la merindad de Arratia, a veinte y siete dias del mes de junio de mill e quinientos y setenta años, a presencia de mi Pº de Leguinaeche, escriuano de su magd y testigos de yuso contenidos, parecieron presentes Pº de Arançaçugoitia, Pº de Arandoi e Jn de Usabel y Jn de Huegonaga, todos vecinos de la anteyglesia de Aranzazu, e dijeron que todos quatro juntamente de mancomun a voz de uno y cada uno de ellos por si ynsolidum por el todo... se obligaban e obligaron con sus personas e vienes muebles e rraíces avidos e por aver de dar e pagar a **Pero Vrtiz de Atucha**, vecino de la dha anteyglesia de Arançaçu, que presente estaua... diez y ocho ducados de horo, los quales le devjan por rrazon que, siendo de los braçeros del dho Pº Urtiz para hacer caruon en los montes de la dha casa y torre de Arançaçu, en los dhos montes que ellos auian hecho caruon el dho Pº Vrtiz auia auido de dagño e perdida los dhos diez e ocho ducs, que los que los quales an sido tazados e averiguados por Myn Ybañes de Vberuhaga porque por el daño que por causa de ellos auian habido los dos montes le pagasen los dhos diez e ocho ducs... (ZUA\_03\_Leginetxe\_1570).

#### 2.4.-Pedro Ortiz de Atucharen heriotza

Lemoako Eleiz Artxiboetan aurkitu dugu Pedro Ortiz de Atucharen heriotzaren berri, nahiz eta Arantzazun hil eta Diman lurperatua izan zen. Agiri laburra izanagatik, oso mamitsua iruditu zaigu. Pedro Ortiz 1571ko abuztuak 28an hil zen, Arantzazun. Diman izan zen lurperatua, bere aita Ortuño zenaren gainean, Santa Katalina kaperan:

“A veinte y ocho dias del mes de agosto de mil e quinientos e setenta y uno murjo **Pero Vrtiz de Atucha** en Arançaçu de Arratia; fue enterrado en Dima, sobre su padre Hortun de Atucha en la capilla que hizo el lizdo. Olaçaua; testo en presencia de Pedro de...” (EE\_AA\_heriotzak\_212590).

#### 2.5.-Pedro Ortiz de Atucharen heriotza ostekoak

##### 2.5.1.-Pedro Ortiz de Atucharen ondasunen inbentarioa

Pedro Ortiz hil berri dugu, eta bere emazte María Ibáñez de Usunsolok ondasun higiezin eta higigarrien inbentario bat egitea erabaki du Pedro de Leguineche eskribauaren aurrean. 1572ko urtarrilak hamarrean gaude (ZUA\_03\_Leginetxe\_1572\_01).

Inbentarioa oso interesgarria da, bertan agertzen baitira Pedro Ortizek, hil denean, dituen ondasun guztiak. Tamalez, inbentarioa biltzen duen agiria oso zaharkitua dago; are,



aurreko bost-sei orrialdeetan, goikaldean, zati handi bat apurtua du. Ondorioa: ezin dugu ondasun guztien berri eman.

Pedro Ortizenak ziren onibarrak:

- *Atuchola* oinetxea eta berari loturiko gainontzeko etxeak, lursail, baso, sagardui eta gainontzeko bereak. Baita *Larrabeitiako* burdinolaren zortzirena, eta oinetxeari dagozkion eskubide eta dibisak.  
Eskubide eta dibisok hainbat etxetan dituzte. Aipatzen den lehena *Iturbe* da; etxe honek txerri bat, imina bat gari, eta bost-sei marai dirutan ordaintzen zituen urteko. Beste etxeren baten/batzuen berri ematen hasi da, baina ez dakigu zein/zeintzu den/diren agiria apurtua dago eta. Ondasunon usufruktua María Íñiguez de Alcibarrena da, Pedro Ortizen ama eta María Ibáñezen amaginarrebarena.
- *Ugaldea* oinetxeko hiru laurdenak, bereak dituen lurrekin. Etxe honen usufruktua ere María Íñiguez de Alcibarrena da.
- Gaztelu-Elexabeitin kokatua den *Olabarria* edo *Arrutaran* izenez ezagututako kortabaso. Lur hau *Ugarte* etxeari zegokion eta eurei erosi zieten.
- *Apurtua, ezin da irakurri.*
- *Apurtua, ezin da irakurri.*
- *Jaunbaso* basoaren erdia.
- *Elgetzuko Santa Luzia* ondoan dauden erroak, ehun eta hirurogeita hamar dukatetan erosiak.
- *Ubegiako* erroak, Dimako San Pedro elizan Santa Katalina kapera eraiki zuen Olazabal lizentziatuarenak zirenak.
- *Apurtua, ezin da irakurri.*
- *Apurtua, ezin da irakurri.*
- *Apurtua, ezin da irakurri.*
- Arantzazu-Zeberioko Argiñao auzunean etxeren bat, Martin Ozerinena antza denez.
- *Atucha* oinetxea eta bereak dituen gainontzeko etxeak. Juan de Atucha zenaren zorren enkantean erosiak.
- Arantzazuko etxe eta dorrean zituen sagardoa gordetzeko zazpi upel.

Itxura guztien arabera, bost-sei bat onibar deskribatzen dira atal apurtuetan. Bat, zalantzarik gabe, Dimako *Elexalde* oinetxea izango da, berea dela esan baitigu Pedro Ortizek aurreko agirietako batean. Beste hiru-lau *Atucholarekin* batera erosi zituen



*Gastañagazabal, Landaeta, aldameneko etxetxua eta Arecheta.* Jarraiko diru-zorren inbentarioan *Urkizu* eta *Yurrebasoko* basoak azaltzen dira. Besteak, tamalez, koka ezinak.

Bestalde, *Elgetzu* eta *Ubegiako* errotak aipatzen dira, batzuk erosiak eta besteak Olazabal lizentziatuarenak zirenak.

Inbentarioarekin jarraitzen du María Ibáñez de Usansolok; dirua zor dietenekin; kasu gehienetan eman zaizkien burdin eta ikatz kargengatik, zentsu bat edo besterengatik, *Atutxola* oinetxeko errentagatik... 200 zordun inguru azaltzen dira inbentarioan.

Pedro Ortiz de Atucharen zorrak ere inbentariatuak ageri dira:

- Euren suhi den Martín de Zamudiori, alaba Mari Íñiguezen doteagatik eskaini zizkioten zazpi zentsu eta laurogeita hamar dukat.
- Pedro Ortizek anaia Íñigo Ortizi zor dizkion berrehun eta hamar dukat.
- María Ibáñezek dio Pedro Ortizen gurasoek bostehun dukat agindu zizkiotela Íñigo Ortizi. Gehi lau mila zortziehun eta zortzi marai zentsu eta errentatan, guztiak Íñigo Ortizi ordaindu beharrekoak.
- Pedro Ortizek merkatari bati zor zizkion ehun dukat.
- Bilboko auzotar bati zor zizkioten ehun eta hogeita sei erreal.
- Pero Ortizen aita Ortuñok bere testamentuan Catalina de Guerra lobarri agindu zizkion hogeit hamar dukat.
- Pedro Ortizek loba Martín Ibáñez de Arespechuetari agindu zizkion hogeit hamar dukat.
- Pedro Ortiz derrigortua zen Pedro de Emagairen emazte Mari Íñiguez de Atucha arrebari zaia eta kapa bat egitera. Mari Ibáñezek hogeita bederatzi dukat ordainduko ditu.
- ...

Inbentarioa Arantzazuko oinetxe eta dorrean eman zen, mila bostehun eta hirurogeita biko urtarrikak hamarrean (*Ikus 1 Gehigarria*).

Mari Ibáñez de Usansolok gehitzen du bere eta senarraren ondasunetatik, urteko eta bizi den arteko, berrogeita hamar dukat zor dizkiotela Mari Íñiguez de Alcibar ama/amaginarrebari.



Mari Ibáñezek dio, azkenik, bere senar Pedro Ortizek diru kopuru batzuk zor dizkiola Diego de Abendañori Igorreko hamarrenak eta Arantzazuko burdinola eta erroten errentagatik.

## 2.6.-Mari Ibáñez de Usunsolo alarguntsa

### 2.6.1.-Mari Ibáñez, adin txikiko alaben tutore -1572-01-20- (RCV-SV,CAJA 1663,3)

Mari Ibáñez de Usunsolo Bizkaiko Foru Alkatearen tenientearen aurrean azaldu da, Arantzazun, bere senarra duela bost bat hilabete zendu dela adieraziz; adin txikiko (12 urtetik beherako) bi alaba dituztela esan du, Mari Ibáñez eta Anton(i)a de Atucha Usunsolo. Eta horrexegatik hain zuzen tutoretza beharrean daudela; beraz, bien ama dela eta berak hartuko duela bere kargu euren tutoretza. Ardura horren fidatzaile, Martín de Zamudio eta Ortuño de Guerra aurkezten ditu, bere bi suhiak...

### 2.6.2.-Mari Ibáñez eta Juan de Olarra -1572-03-26- (ZUA\_03\_Leginetxe\_1572\_04)

En la casa y torre de Arançaçu que es en la merindad de Arratia, a veinte y seis dias del mes de marzo de mill e quinientos e setenta e dos años, en presencia de my Pº de Leguinaeche... parecio presente Juan de Olarra, vezino de la anteyglesia de Arançaçu, quien en su nombre y boz se obligo con todos sus bienes muebles e raizes avidos e por auer, de dar e pagar a doña Mari Ybañes de Vsunsolo, viuda, mujer que fue de Pº Vrtiz de Atucha, defunto, e a quien poder obiere, diez doblones de horo por rrazon de zien quintales de fierro...

Agiri honen sinatzaileen artean, Ortuño Ochoa de Guerra e Ibarra ageri da, aurkeztu berri dugun Mari Ibáñezen suhia, ziur asko.



### 2.6.3.-Mari Ibáñez eta Ortuño de Aguirre -1572-03-26- (ZUA\_03\_Leginetxe\_1572\_06)

Ortuño de Aguirre de Ubirichaga eta Mari Ibáñez en arteko kontuak:

En la casa y torre de Arançaçu que es en la merindad de Arratia, a veinte y seis dias del mes de marzo de mill e quinientos e setenta e dos años, en presencia de my Pº de Leguinaeche... parescieron presentes Hurtuno de Aguirre de Vbirichaga, vezino de la anteyglesia de Yurre de una parte, e dona Mari Ybanez de Vsunsolo, viuda, mujer que fue de Pero Vrtiz de Atucha, defunto, por si e como madre legitima e tutora matriz de Mariybanez e Antona de Atucha, sus hijas legitimas e de dho su marido de la otra e se juntaron a fenecer quantas por dares e tomares que ... asi de fierros que el dho Pero Vrtiz le abia dado para fundir como de otras cosas... que en razon cargo e descargo de es en la forma e manera siguiente:

#### Cargo que se aze a Hortuno de Aguirre:

Primeramente, se haze cargo el dho Hurtuno de Aguirre de Vbirichaga de diez y siete quintales menos ocho libras de fierro que deuia al dho Pero Vrtiz de Atucha e la dha dona Mariybanez...

Yten se le hizo cargo de treinta e nueve rrs por tres anegas de trigo del diezmo de su casa, que el dho Hurtuno deuia de los años de sesenta e nueve y setenta, a treze rreales la anega. Yten se le hizo cargo de siento e veinte rrs por sesenta sacos de manzana que tomo del diezmo de Yurre...

Yten se le hizo cargo de zinquenta e ocho rreales pro ciento e diez y seis...

### 2.6.4.-Mari Ibáñez eta Juan de Durango. 1572-06-06 (ZUA\_03\_Leginetxe\_1572\_05)

Juan de Durangoren aldeko ordainketa-gutun bat:

En la casa y torre de Arançaçu que es en la merindad de Arratia, a seis dias del mes de junio de mill e quinientos e setenta e dos años, en presencia de my Pº de Leguinaeche... dona Mari Ybanez de Vsunsolo, viuda, mujer que quedo de Pº Vrtiz de Atucha, por si y como tutora matriz de sus hijas menores e del dho su marido, por virtud de la tutoria que le fue discernida por juez competente, por testimonio de mi dho escriuano, dio carta de pago e fin a Juan de Durango, vecino de la villa de Billaro, e a sus bienes de treinta quintales de fierro que al dho Pº Vrtiz de Atucha le debia por virtud de una obligacion que paso por razon de Furtuño de Bildosola escriuano...

### 2.6.5.-Mari Ibáñez eta Diego de Ibarra Elejabeitiaren arteko auzia. 1572-1576

Hurrengo lerrootan garatuko dugun auzi honi buruzko informazioa Valladolideko Kantzelaritza Errealean hartu dugu, bi iturri desberdinetan: *RCV-RE, CAJA 1324,27* eta *RCV-SV, CAJA 1663,3* sinadura duten agirietan. Lehena oso laburra da, lau orrialdetakoa eta bertan auziaren laburpen gisako bat egiten da. Bigarrena, auzia bera, karpeta batean bildutako exekutoria desberdinei dagokiona; guztira, mila orrialdetik gora dira.



Zein da, baina, auziaren zioa? Agidanez, horrela azaltzen baita Bizkaiko hainbat eta hainbat agiri zaharretan, oinetxe batzuek (Ahaide Nagusienak, leinu garrantzitsuetakoak, eta abarrak...) besteekiko ohore, lehenetasun eta eskubideak izan zituzten.

Auzi honetan, bi oinetxe ditugu euren interesak defendatzeko ahalegin guztiak egingo dituztenak. Lemoako *Atuchola* oinetxea, batetik, auziaren garaian Pedro Ortiz de Atucharen alarguntsa eta alabena dena; Arantzazuko *Ibarra* oinetxea, bestetik, Elexabeitiatarrena.



*Atuchola* oinetxeak etxe desberdin batzuetako dibisa<sup>13</sup> du eta zergak kobratzen ditu, euren artean Arantzazuko *Ibarra* etxearenak: garai batean txerri bat, imina bat gari eta bost marai t'erdikoa. Garai batean diogu; izan ere, noizbait, txerri edo gari eskazia zirela aitzakia, zerga hori aldatu eta aurrerantzean urteko hirurogei marai ordaintzen hasi omen zen *Ibarra* oinetxea.

1571ko abuztuan hil zaigu Pedro Ortiz de Atucha, emaztearekin batean *Atucholako* jabea, eta ematen du *Ibarra* etxeak eta orduan jabe zen Diego de Elejabeitia Ibarak ez dutela urteroko zerga ordaindu. Ondorioz, Mari Ibáñez de Usunsolok, senarra izan zenaren eta adin txikiko alaben izenean, auzia jarriko dio *Ibarra* oinetxe eta jabeari.

Auziko orrialdeetan zehar, alde batek eta besteak, euren lekukoak aurkeztuko dituzte; batzuk betidanik ikusi dituzte *Atucholako* jabeak zerga hori kobratzen *Ibarra* etxekoei: non eta Arantzazuko elizan (elizaren dorrean zehazten du lekukoren batek), noiz eta abuztuko Andra Mariaren egunean. Beste batzuek, aldiz, inoiz ez dute zerga hori ordaintzen ikusi.

Eta, horrela, aurkezten diren galdekizun guztietan zehar. Mari Ibáñez de Usunsolo eta bere izenean dihardutenek aurkezten dituzten lekukoek adostasuna emango diote egiten dizkieten galdera guztiei. Diego de Elejabeitiak aurkezten dituenek honek aurkeztutako galderei. Eta horrela, esaterako, batzuek diote Pedro Ortiz eta Mari Ibáñez ezkondu zirenetik hogeita hamasei urte igaro direla; beste partekoek, hogeita bost baino ez direla...

Auziak hainbat toki, pertsona eta bitxikeriaz jabetzeko parada ematen digu. Esaterako, momentu batean, *Ibarrara* joan dira Diegoren bila baina ez dute hau etxean aurkitzen; bigarren, hirugarren... eta aurkitu ez. Arantzazuko dorreetxean bizi diren Mari Ibáñez eta suhi Martín de Zamudiok diote euren dorretik *Ibarra* ikusten dutela eta leihotik leihora mintzo daitezkeela, hain daude hurbil eta.

Instantzia guztietan emango diote arrazoia Diego de Elejabeitiari: lehen instantzia Bizkaiko Foru Alkatearena da; honek epaia ematen du 1574ko abuztuak hogeita zazpian.

---

<sup>13</sup> Real Academia Española, *Diccionario de Autoridades*. 1726-1739. Tomo III D-F. Edición facsimilar con motivo del III Centenario. "Divisa: f.f. La heredad o parte de la herencia de los padres. Llamose assi porque se dividían las tierras y solares que dexaba el difunto entre los hijos que tenia, y por razón de poseerlas se conocía venían de aquella familia; pero oy en esta acepcion no tiene uso. Lat. *Hereditas paterna*. RECOP. Lib. 6. Tit. 3. L. 7. Y qualquier dellos que muera, quier el padre o la madre donde viniere la *divisa* o el solariego, el hijo pueda tomar el conducho y la *divisa* y los derechos del solar luego, por razón del muerto, si dél viniese la *divisa* o el solariego."



Mari Ibáñez de Usunsolok erregua egiten du Bizkaiko Epaille Nagusiarenean; honek ere, Diego de Elejabeitiari ematen dio arrazoi, 1575eko azaroak bederatziko epaian:

...fallo que Rodrigo de Lecama, tenyente de Alcalde del fuero de Vizcaya, que de ese pleito conosco en la onza de sentencia que la dio y pronuncio de que por parte de la dha dona Mari Yvanez de Vsunsolo y sus hijas fue apelado juzgo y pronuncio bien = por hende debo confirmar y confirmo su juicio y sentencia del dho Alcalde, la qual mando sea lleuada a deuida hexecucion con hefecto como en ella se contiene e no ago condenacion de costas e por esta my sentencia de fe... ansi lo pronuncio y mando el doctor Hernando despinosa... (RCV-RE,CAJA 1324,27).

Valladolideko Kantzelaritzako Presidente eta epaileek ere, instantzia gorenean, aurrekoen epaiak berresten dituzte, Valladoliden bertan, 1576ko urtarrilak 13an.

Foru Alkateak epaitu zuen Mari Ibáñez de Usunsolok ez duela erakutsi inongo titulorekin dibisa eta zerga hori kobratzeko eskubidea duenik; beraz, arrazoia ematen dio *Ibarra* etxeari. Goragoko instantziek epai hori berretsi besterik ez dute egiten.

#### 2.6.6.-Mari Ibáñez de Usunsolo, zendua. 1575-08-29 (RCV-SV,CAJA 1663,3)

Data honetan, lehen aldiz, Mari Ibáñez de Usunsolo zenduaz mintzo da kontakizuna:

En la casa y torre de Arançaçu, que es en la merindad de Arratia, a veinte y nueve dias del mes de agosto de mill e quinientos y setenta e cinco años, ante my --- de cugasti, teniente de Alcalde en el Fuero deste señorío de Vizcaya... parecio el licenciado Ynigo Vrtiz de Atucha, clerigo beneficiado en las yglesias de San Pº de Dima y Arançaçu e dixo que, como constaua e pareçia por una clausula o clausulas del testamento que hizo e otorgo dona **Maribanes de Usunsolo, viuda, mujer que fue de Pero Vrtiz de Atucha su referido marido, al tiempo que fallecio...**



ATUCHA: behinolako etxe-abizen baten arrastoen bidetik